

# 21. <sup>æek</sup>korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA



<sup>æek</sup>  
21. korrika  
2019ko apirilaren 4tik 14ra  
GARESTIK GASTEIZA



## KLIKA KORRIKA 2019

A1

**KORRIKA *bakoitzak*<sup>1</sup> bere kanta du. Kanta horiek euskal musikari askok egin dituzte: Mikel Laboa, Izaro, Ruper Ordorika, Afrika Bibang, Niko Etxart, Maixa eta Itziar, Gose, Betagarri... 21. KORRIKA-ren kanta Fermin Muguruza, Mad Muasel eta La Furia musikariek egin dute.**



## BILATU DATU FALTSUAK.

ENCUENTRA LOS DATOS FALSOS.

TROUVEZ LES FAUX RESEIGNEMENTS.

HAUEK DIRA FERMIN MUGURUZA, MAD MUASEL ETA LA FURIA ABESLARIEN<sup>2</sup> BIOGRAFIA LABURRAK<sup>3</sup>. BAINA BIOGRAFIA HAUTAN, HIRU GEZUR<sup>4</sup> DAUDE. ZEIN DIRA?

## FERMIN MUGURUZA

Fermin Muguruza (1963, Irun) euskal musikari **ezaguna**<sup>5</sup> da. Kortatu, Negu Gorriak eta La Oreja de Van Gogh taldeetan abestu du. **Musika-mota**<sup>6</sup> asko egin ditu (hasieran, ska, punk eta rocka; gero, rap, hip hop eta reggae), eta musikari askorekin egin du lan.

Fermin musikari euskaltzalea eta internazionalista da, eta zinema-**zuzendari**<sup>7</sup> ere<sup>8</sup> bada. **Duela gutxi**<sup>9</sup>, *Black is beltza* filma **estreinatu**<sup>10</sup> du. 21. KORRIKAREN kanta egin du, *Mad Muasel* eta *La Furiarekin*.



## MAD MUASEL

*Mad Muasel* Erandioko artista bat da. Bere lehenengo lana *Bumclap Teachers* diskoa izan da (2009). **Gaur egun**<sup>11</sup>, abeslari gipuzkoar hau reggaearen eta dancehallaren nazioarteko erreferentzia da. 21. KORRIKAREN kantan, **ahotsa**<sup>12</sup> eta hitzak ipini ditu, Fermin eta *La Furiarekin*.

## NEREA LORÓN, LA FURIA

*La Furia* (Cascante, 1918) Nafar Erriberako musikaria da. Bere lehenengo diskoa *No hay clemencia* izan da (2013). *La Furiaren* kantetan, feminismoa eta anarkia dira **gai nagusiak**<sup>13</sup>. 21. KORRIKAREN kantan, *Mad Muaselek bezala*<sup>14</sup>, ahotsa eta hitzak ipini ditu.

## AZPIMARRATU FORMA EGOKIAK, ETA ESAN ESALDIAK EGIA ALA GEZURRA DIREN.

SUBRAYA LAS FORMAS CORRECTAS Y DI SI LAS FRASES SON CIERTAS O FALSAS.

SOULIGNEZ LES FORMES CORRECTES ET DITES SI LES PHRASES SONT-ELLES CERTAINES OU FAUSSES.

## EGIA GEZURRA

- |                          |                          |                                                                                                                  |
|--------------------------|--------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 1. <i>Black is beltza</i> filma Fermin <b>Muguruzakoa/Muguruzarena</b> da.                                       |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 2. Fermin, <i>La Furia</i> eta <i>Mad Muasel</i> <b>Nafarrokoa/Nafarroakoak</b> dira.                            |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 3. 21. KORRIKAREN kantan, <b>hiru kantari/kantari hiru</b> ariko dira.                                           |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 4. <b>Mikel Laboak/Mikel Laboa</b> ez du KORRIKAREN kantarik egin.                                               |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 5. 20. KORRIKAREN kantaren hitzak Ferminnek, <i>La Furiak</i> eta <i>Mad Muaselek</i> egin <b>dira/dituzte</b> . |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 6. <i>Bumclap Teachers</i> filma <i>Mad Muaselek</i> <b>egin du/egiten du</b> .                                  |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 7. <i>La Furia</i> abeslaria <b>ez Tuterakoa da/ez da Tuterakoa</b> .                                            |

## Hiztegia

1. **Bakoitza**: cada uno,-a; *chacun-e*
2. **Abeslari**: cantante; *chanteur,-euse*
3. **Labur**: breve; *bref, brève*
4. **Gezur**: mentira; *mensonge*
5. **Ezagun**: famoso, -a; *fameux,-euse*
6. **Musika-mota**: género musical; *catégorie musicale*
7. **Zuzendari**: director,-a; *directeur,-trice*

8. **Ere**: también; *aussi*
9. **Duela gutxi**: recientemente;  *récement*
10. **Estreinatu**: estrenar; *étrenner*
11. **Gaur egun**: hoy (en) día; *de nos jours*
12. **Ahots**: voz; *voix*
13. **Gai nagusi**: tema principal; *thème principal*
14. **Bezala**: como; *comme*

## KLIKA KORRIKA 2019

Heldu da guztion andereñoa  
Adi, adi, pasatuko dut zerrenda  
Je suis *Mad Muasel*, oh la la!  
Faty faty den soinua zabaltzen dut mundura.  
Guztiok bat egitea ezinbestekoa  
Bakoitzaren nortasuna errespetatzea  
Motorrak arrankatzeko momentuko aukera  
Gurea, herrikoa, KORRIKA!

Tipi-tapa, tipi-tapa lortzen merezi duguna,  
martxan jartzen hasteko egintzazu KLIKA,  
ez dugu presarik helburua argi dago eta.  
Pausoz pauso, gure erritmora!

**Gure erritmora**  
**nire, zure, gure erritmora**  
**KLIKA KORRIKA KLIKA,**  
**GURE ERRITMORA**  
**KLIKA KORRIKA KLIKA**  
**KORRIKA!**

Jai giroa, bero-beroa,  
orain oraingoa, gero gerokoa,  
oreka ez galtzeko oinarri sendoa.  
Hauxe da gure leloa:  
po-po-posiblea da klika aldatzea,  
elkarren artean konektatzea,  
pra-pra-praktikatzea,  
euskara gure artean bizitzea.

Lan (e)ta lan, banaka, taldean,  
Aukeratu zure lekua bidean,  
Herriaren arnasa sentitzen da  
KORRIKA datorrenean.

Zu gabe, zu gabe, hau ez da posible;  
orain, gaur eta hemen, dena da posible!

**Gure erritmora...**

**Klika, klika!**  
Altxa ezkerreko besoa.  
**klika klika!**  
Orain altxa eskubikoa.  
**Klika, klika!**  
Antenak ditugu piztuta.

**Klika, klika!**  
Gure sarea doa KORRIKA!  
**Klika, klika!**  
Euskal planeta ari da dantzan.  
**Klika, klika!**  
Betikoak ari dira guri sermoika.  
**Klika, klika!**  
Euskaraz egingo diet zirika.  
**Klika, klika!**  
**Ikimilikiliklik...a!!!**

Suaren erritmora, hitzari bide eman,  
arbasoen dantzak, kulturaren gorputzean.  
Kantauriko brisa, Bardetako ziertzoa,  
gure borrokan tinko jarraitzeko hauspoa,  
pista argituko duen metxa piztu dadila,  
herri feminista eta askearen alde Klika!

Lekukoa neskaxari emango dioten  
amamek ahotsa altxatu dezatela ozen,  
aterpea sentitzeko,  
komunikatzen den herri bat ez da inoiz zatituko.

Erriberatik *la Furia* banator KORRIKA  
Batu gaitezen guztiok, arma tiro Klika!

**Gure erritmora...**

HITZAK GAZTELANIAZ ETA FRANTSESEZ  
<http://www.korrika.eus/euskaltegi-etarako-unitate-didaktikoak.html>

**La Furia**



**Fermin Muguruza**



**Mad Muasel**





# 04 Denbora-pasak

## MUSIKARI EZKUTUA

NOR DA ABESLARI HAU?

¿QUIÉN ES ESTA CANTANTE?

QUI EST CETTE CHANTEUSE?

LAGUNTZAK:

1. KORRIKA kanta bat abestu du.
2. Gipuzkoakoa da.
3. Talde batean abesten du.
4. Akordeoia jotzen du.
5. I \_ \_ \_ O \_ \_ \_ \_ \_ du izena



## LETRA-ZOPA

TOPATU KORRIKA KANTA HAUEK EGIN DITUZTEN MUSIKA-TALDEAK:

ENCUENTRA LOS GRUPOS MUSICALES QUE HAN HECHO ESTAS CANCIONES.

TROUVEZ LES GROUPES MUSICAUX QUI ONT FAIT CES CHANSONS.

- NORK EGIN DU 2. KORRIKAREN KANTA? **A K E** \_ \_ \_ \_ \_
- NORK EGIN DU 3. KORRIKAREN KANTA? **E G** \_ \_
- NORK EGIN DU 5. KORRIKAREN KANTA? **O S K** \_ \_ \_ \_
- NORK EGIN DU 10. KORRIKAREN KANTA? **G O Z** \_ \_ \_ \_ \_
- NORK EGIN DU 16. KORRIKAREN KANTA? **B E T** \_ \_ \_ \_ \_
- NORK EGIN DU 17. KORRIKAREN KANTA? **G O** \_ \_

M	L	I	O	S	K	O	R	R	I	T	B
D	F	E	L	A	U	L	L	U	J	S	E
F	W	A	K	E	L	A	R	R	E	H	T
A	Z	F	J	P	O	O	J	U	L	R	A
B	G	O	Z	A	T	E	G	I	S	H	G
W	U	G	O	N	P	B	O	B	V	L	A
W	T	F	F	T	M	D	S	Z	A	E	R
I	S	W	D	D	E	L	E	S	V	S	R
S	T	C	Q	K	G	T	B	M	E	H	I
Z	A	Z	M	V	A	X	Z	F	T	N	W
N	N	H	S	U	N	E	K	S	M	K	G
M	I	V	L	S	C	S	V	Z	B	Q	P



ARIKETEN ETA DENBORA-PASEN ERANTZUNAK  
<http://www.korrika.eus/euskaltegi-etarako-unitate-didaktikoak.html>